

ttipi-ttapa

1990eko Martxoak 1

33. zenbakia

dohain banatzen da



Publizitaterik onena preziorik ttikienean

Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbertze herritara zabaldu nahi badituzu deitu 63 11 88 telefonora

HAMASEI MODULO
(ORRIALDE ERDIA)

12.000 Pzta..

MODULO BAT

900 Pzta.

HIRU MODULO

2.700 Pzta.

SEI MODULO

5.400 Pzta.

BI MODULO

1.800 Pzta.


NON-ZER

- 4. Beharrezko telefõnoak.
- 5. Agenda.
- 6. Irakurleak mintzo.
- 8. Hontaz eta hartaz.
- 9/19. Herriz-herrit: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Sara.
- 20. Erreportaia. K. SANTIAGO
- 22.. Elkarrizketa. P. ASTIZ
- 23. Kirolak. M. ALTZUARTE
- 24. Irakaskuntza. G. GOIA
- 25. Astrologia. F. ALZUGUREN
- 26. Merkatu Ttikia.
- 27. Denborapasa. ENBIDO

Hiru urte igaro dira rock musika lantzen hasi zirenetik. Hiru Doneztebekoak dira eta bertze bat Lesakarra. Mendialdeko rocka deitzen diote beren estiloari. Zentzerock taldeaz ari gara. **20. or.**



1988tik 1989ra izugarrizko aldaketa eman zen kirol aktibitate zein partehartzaile kopuruan. Aurten ordea, badirudi orain arte aurreratutakoa galdu egin behar dugula. **23. or.**



Noiztik datoz Zaku-zarrak? Noiz hasi ziren? Hemen eta han galdetuz badirudi bi aro edo etapa ezberdin bereiz ditzakegula... **22. or.**



Sakana, Leitza-Imotz, Ultzama, Antsoain eta Bortzirietako Udalordezkariak eta Ikastari-IKAKoek, Nafarroako Gobernuaren jarrera salatu zuten Iruñean emandako prentsaurrekoan. **18. or.**

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna:

Josemanuel Irigoien

Publizitate arduraduna:

Miren Karmele Tolosa

Erredakzio taldea:

Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz

Ale honetan parte hartu dute:

R. Harribilaga, O. Txoperena, Isabel & Emma, J. Larretxea, P. Petrirena, Txema Aldabe, Iban

Isasi, Juainas, Koro Etxeberria, Koro Irazoki, Mañone, Gabi Goia, Gotzone & Antton, Mixel, M. Altzuarde, P. Astiz, F. Alzuguren, J. Atxa, Karlos Santiago eta Enbidok.

Inprimategia: Antza (Donostia)

Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunik.

2 ORTZIRALA

—Lesaka, arratsaldeko 6etan, Herriko Etxean, Euskara Batzordearen bilera.

4 IGANDEA

—Beran, Larun Mendi Taldearen ateraldia: Aralar.

—Elizondo, Erlategian, Euskal Herriko Kantu Txapelketa Urmeentzat.

—Lesakan, dantzaldia "Minxoriak" taldearekin.

6 ASTEARTEA

—Bera, arratsaldeko 6etan, Herriko Etxean, Euskara Batzordearen bilera.

8 ORTZEGUNA

—Arantza, arratsaldeko 8etan, Herriko Etxean, Euskara Batzordearen bilera.

11 IGANDEA

—Bera, Larun Mendi Taldearen ateraldia: Azkua.

—Lesaka, dantzaldia "Arkaitz" taldearekin.

12 ASTELEHENA

—Igantzi, arratsaldeko 7etan, Biltokian, Euskara Batzordearen bilera.

16 ORTZIRALA

—Etxalar, arratsaldeko 7etan, Zentroan, Euskara Batzordearen bilera.

GOARDIAKO BOTIKAK

—Martxoaren 3-4ean, Lesaka eta F. Iturralde (Elizondo).

—Martxoaren 10-11an, Etxalar eta F. Lezaun (Elizondo).

IKASTAROAK

—EPAk antolaturik, Garraio Gaitasunerako Agiria edo "Licencia de Transporte de Mercancias" delakoa ateratzeko. Berako Lanbide Eskolan emanen da martxoan hasi eta 9 igandez (igandetan bakarrik) Maiatza bitarte. Ordutegiari dagokionez, goizeko 9etatik eguerdiko ordu bata arte, eta arratsaldez, 4etatik 8etara.

Aurkeztu ahal izateko baldintza 18 urteak beteak izatea da (berdin da gidatzeko karnetarik oraindik ez izatea). Ikastaroa bukatutakoan azterketa izanen da Iruñean eta aipatzekoa da, agiria hau derrigorrezkoa dela Estatu mailan garraioak egin ahal izateko.

Ikastaro osoaren prezioa 50.000 pezetatakoa izanen da. Izena emateko, deitu 630411 telefonora.



ARROPA ETA OPARI DENDA

Mercaderes 9
DONEZTEBE



MALDAERREKA S.A.
«La Suiza» Aseguro
mota guztiak

Bittiria kalea - Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa: 637429 LESAKA

La primavera la sangre altera

Aldizkari horretan agertzen den ezkondu, jaio eta hildakoen sekzioak erreflexiorako bide bat eman dit. Bistan dagoenez, pixkanaka gure herriak husten ari dira, hildakoen zerrenda bete bete dago eta, ezkontzen direnak eta jaiotzen direnak bakar batzuk besterik ez bait dira. Datu horiek, iturri ofizialetik etorriko dira seguruenik eta elkartzen direnen kopurua ez da agertuko. Inguru honetako jendearen jarrerak eta ohiturak gauzak behar bezala egitera bideratzen dute, hau da; arrunt gutti izanen dira elkartzen direnak eta beraz, datua baliagarria izan daiteke.

Bertzalde, ez dakigu hemen ezkondu edota kanpora. Herri tikiak ez dute lanik eta erosotasunik eskeintzen eta gazteen joera, hori lortzera doaie. Honetarako hiriak edo herri haundiak aukera gehiago eskeintzen dute.

Bada alderantzizkoa ere, eta prueba dugu hemen salgai dauden zenbait baserri batez ere gipuzkoanoak erosi eta etortzen direla bizitzera. Beste batzuk aste burutan bakarrik. Horiek seguraski guk baino hobe dakite herrien idiosinkrasia baloratzen, eta suposatzen da, bertan geratzen direnak beraien bizitzaren kalitatea hobetzeko etortzen direla. Orduan bada, hirietan ez dago guk hemendik ikusten duguna.

Dena den ez da hau nik proposatu nahi dudana; bertakoak bertan gelditzea baizik. Orain udaberria datorrela eta la primavera la sangre altera, ea ezkonduen edo elkartzen direnen kopurua hiltzen direnenarekin parekatzen den. Bikote berriak behar ditugu eta noski honetan bakarrik ez gelditu... haur pare bat bederen ekarri mundura jaiotakoen kopurua ere parekatzeko.

Pentsatu bestalde, euskararen etorkizunaz kezkatzen zareten horiek, Nafarroako erreserba ga-

rela eta martxa honetan ez dugula ezta Vascuenceren legea ere behar izanen.

Juan Karlos



Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzitako 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izen-deituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezizun edo izen-goitiz argitaratuko genuke.

IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA
Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiain

SARA - LAPURDI

GAIIA

OSASUN-DENDA
BELARRAK
DIETETIKA
EDERGAIK

Hilean behin mediku naturistarekin kontsulta
Arretxea, 32 Tfnoa: 637466 LESAKA

Laiia

MUSIKA DENDA

San Esteban 37
Tfnoa: 63 10 59
BERA



Baztan, Bidasoa eta Male-
rrekako etxe, baserri, pisu,
bajera, eraikitzeo lurak
eta eremua duten borden
berri ematen da

Jose Antonio Elizondo
EZKALO

Tfnoa: (948) 59 40 54 Intzakardi, 8
DONEZTEBE



TELLETXEA
ALTZARIAK

Rosa Seminario z/g
Tfnoa.: 594258
DONEZTEBE



EUSKAL LIBURUAK
EUSKAL MUSIKA
GAI OROKORRAK

Comedias, 14 - IRUÑEA



SUKALDE ALTZARIAK

Legia, 42 Tfnoa: 630377 BERA

TELEBISTAK
BIDEOAK
ELEKTROGAILUAK

SALMENTA ETA
KONPONKETAK



ERLOJU ETA BITXIAK
KONPONKETA TALLERRA

Legia 1, Tfnoa: 63 07 51
BERA

ERLOJU ETA
BITZIAK

Merkatu karrika
DONEZTEBE



GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA

Aitzate 5, Tfnoa: 63 00 83 BERA



ZALAIN
KARROZERIAK

TXAPA ETA PINTURA
Tfnoa.: 630188 BERA

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa: 59 22 45
ORONOTZ-MUGAIRE



Mujika Benta

IBARDIN - BERA

OROIGARRIAK
MOTA GUZTIETAKO
EDARIAK

Inguru honetako hirugarren intsumisoak juezaren aintzinean deklaratu

Hilbeltzean soldaduskara deitua izan zen

Otsailaren 23an Iruñeko epaile militarren aintzinean aurkeztu ziren 13 intsumisoen artean, *ttipi-ttapa*ko kolaboratzaile dugun Patxi Petrirena aurkitzen zen, bera delarik eskualde honetako hirugarren intsumisoa, Etxalarko Jorge Arburua eta Lesakako Manuel Zamorano joan den urrian eta abenduan aurkeztu bait ziren. Aurreko kasuetan bezala, juezak, soldaduskari uko egiten ziotela konfirmatu ondoren, libre utzi zituen, oraindik ezin delarik jakin prozesua nola joanen den; gauza ezaguna bait da estatu osoan 450 ren bat intsumiso daudela eta epaiketa bakarra egin dela oraindik. Epaiketa horretan hamahiru hilabetezako zigorra ezarri arren, bi prozesatuak libre ateratu ziren, Gobernuak nola jokatu ez dakienaren adierazgarri.

Ildo honetatik, berri garrantzi-

tsu bat eman da azken egunotan: Otsailaren 22an Auzitegi Gorenak baliogabetu egin zuen 1988ko Objezio Legearen dekretu bat, "Pres-tación Social Sustitutoria" edo orde-zko zerbitzu soziala arautzen zuena, hain zuzen ere. Pentsatze-koa da, beraz, delako zerbitzu hori (intsumisoek onartzen ez zutena) betetzen ari ziren objetore banakak etxera joanen direla, eta noizbait bertze dekreturen bat erditzen du-ten arte zai egon beharko dela afera honen etorkizunaz argi pixka bat izatekotan.

Guzi honen ondorio gisa erran daitekeena zera da: soldaduskaren aurkako borroka indartuz doala, borrokaren fruituak begibistakoak direla, eta gaur egungo edozein gaztek serioски pentsatzen ahal duela bere bizitzako urte bat derrigorrez galtzeari uko egitea.

Erosketak arinago egiteko kanpaina

Euskara Mankomunitatearen babespean ari da egiten
Bortzirietan

Udaletxe eta Ikastetxeen bitartez libreta batzu banatuak izan dira familien artean, baita kanpainaren berri ematen duten denda eta banketxeetan.

Kanpaina honen helburu nagusiak bi dira. Batetik helburu didaktikoak, alegia, maizenik erosten diren gaien zerrenda euskaraz jar-tzea, jendeak erosgai hauek euskaraz nola erraten diren jakin dezan.

Zentzu honetan, kanpaina honen bigarren helburua euskara idatzia bultzatzea izanen litzateke: egin behar ditugun erosgaien zerrenda, zenbakia, neurria... eta abar euskaraz idatzi. Hor daukagu gainera libretaren azalean erosgai hauek euskaraz idatzen jakiteko lagungarri izanen zaigun zerrenda.



BAZTAN

ALTZARIAK

zurgindegia

- ✓ Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak.
- ✓ Koltxoiak.

Zaldubia Poligonoa IRURITA - BAZTAN

ZAROS

P/ EZTEGARA Z/G
(PILOTA LEKU ONDOAN)
Tfnoa.: 63 11 38
BERA

GEHIGARRIAK eta GAZTE, GIZON
EMAKUME eta
HAURREN - MODA

Su-hiltzaile udal parkea epe laburrean eraikia



Su hiltzaileendako erositako kamioia.

ROMAN HARRIBILAGA

Aintzina darrate su-hiltzaile boluntarioz osaturiko parke bat antolatu asmoz Udalak egiten ari dituen lanak. Bide horretan pausuak ematen ari direlaren adibidea, lortu berri den kamioia da; 1.500 litroko kapazitatea daukan ontziarekin prestatua.

Organizazioa eta materiale eresketa

Joan den udazkenean Mugaireko parkean 15 Beratarrek egindako ikastaroarekin eman zitzaion hasiera prestatuntza praktikoari. Ondotik, suteak itzaltzeko behar den 1.100.000 pezetatako materialea eta bigarren eskuko Patrol bat (1.300.000pzta.) erostea erabaki zuen udalbatzak. Erremolke bat erosteko asmoa ere badago. Honekin eta oraindik gehituko zaion materialearekin, trebakuntza praktikak burutuko dituzte; materialaren erabilpena ezagutzeko eta prestatuntza maila egokia lortzeko.

Parkea Aduana ondoan eraikiko da

Lau ibilgailu sartzeko lekuaz gain bileretarako gela ere izanen du. Lanak hilabete honetan hasiko dira eta 2.500.000 pzta. inguruko aurrekontua izanen du. Horretarako, bertze erakundeek diru-laguntzak eskatuko zaizkie.

Mendi alderdietan ere urtegiak eginen dira ontziak bertan urez hornitzeko.

Transmisio ekipoa eta hitzarmen projektua

Walki-talkiak, bilagailuak edo "buskak" eta parkean jarriko den sirenak osatuko dute transmisio ekipoa. Bertzalde, itzalketa zereginetan gerta daitezken istripuendako aseguroa eta lan orduak galtzen direnerako ordainbide laguntzak su-hiltzaileek jaso ahal ditzaten, Udalak hitzarmen bat sinatuko du Iruñeko arduradunekin.

Argentinako euskaldunak Euskal Herrira

Arazo ekonomikoak direla eta, Argentinan bizi diren zenbait euskaldun Euskal Herrira etorri ezin direnez, Udalak 300.000 pezetatako laguntza eman dio *Arkupeak Elkarte*ari.

■ Gure Txokoa Elkartek batzarre orokorra burutu

Urtarrilaren 26an egin zen eta erabili izan ziren gaien artean, Jamotenearen berrikuntza lanak egiteko asmoa; bigarren solairuan irakurketa gela zabaltzea; tenis saila sortzea eta Elkartearen prentsa arduradun bat izendatzearen beharra nabarmentzen dira, bertzeak bertze. Kontuei dagokionez, diru mugimenduak aztertutakoan 2.461.459 pezetatako aldeko saldoa aurkeztu zuen balantzeak.

■ Palmadera, Gurea eta Gure Palmako langileak mugagabeko huelgan

Zazpi egun lehenago bi orduko geldialdiak egin ondoren, joan den otsailaren 19an mugagabeko huelga hasi zuten. Aurtengorako komeinoa berri beharra dela eta, lantegi horiek sortuak izan zirenetik -zaharrenak 27 urte dituen lehen aldia da lan arazoengatik huelga egiten dela.

■ Bi lantegi berri zabaltzeko baimena

Informeak Iruñeko Lurralde Antolaketa eta Ingurugiro Sailera igorri dira erabateko lizentzia eman aintzinean. Horrela, nekazal tresneriaren salmenta eta konponketa egiteko lantegia eginen da Bidasoa karrikan; eta marmolagintzan aritzeko lantegia Zalaingo industrialdean.



Moldatutakoan, Otxogorrienean elkartuko dira Tantirumairu ikastolako haur guztiak

Tantirumairu ikastolak edifizio berria izanen du datorren urterako

M.K.T.

Nafarroa Oinez 88ko azken ekitaldia martxan dago, hau da, ikastola berria egiteko obrak martxan daude.

Leku diferenteak azterturik, egokiena Otxogorrieneakoa zen eta etxe hau zuzentzen duen patronatoarekin akordio batera iritsi ondoren ikastolak lortu du beretzat etxe osoaren erabilera, orain arte Beti-Gaztek, apezak eta ikastolak erabiltzen bait zuten.

Behar diren baimenak lortu ondo-

ren, igeltseroa hasi da lanean eraikuntza husten. Kanpoko lau paretak utzi eta bertze guzia botatzea erabaki da, eraikuntza hau barrenetik nahiko egoera txarrean aurkitzen zen eta ez zen beharretara egokitzen. Ganbara pixkat altxatuko da eta eskalera barrerrik izanen du; beheko plantan: erabilera aunitzetarako aretoa, irakasle gela, idazkaritza, sukaldea, jangela eta aldagela egingen dira; 1. eta 2. plantatan berriz, 3 ikasgela planta

bakoitzean eta ganbaran, 2 ikasgela eta laborategia; kanpoan, inguruko baratzean jolaslekua egitea pentsatu da, guzti honen aurrekontua 31 milioitakoa izanen da.

Obra honen kontratazioa gremioka egingen da diru zerbait aurrezteko.

Datorren ikasturterako irekitzeko asmoa dago, honekin Tantirumairu ikastolak gainditu nahi ditu Nafarroako Gobernuak ikastola legalizatzeko jartzen dituen traba administratiboak, berritze honekin ikastetxe batek bete behar dituen baldintzak beteko bait ditu. Halere, botere politikoaren eskutan egonen litzateke legalizazio hau, jakina den bezala Gobernuaren erranetan, aurreko legalizazio bidean ez dauden ikastolak subentziorik gabe geldituko dira.

Ikastolen konfederakundeak, Euskal Eskola Publikoari buruz egindako eztabaidetan, tratamendu berezia izan du Nafarroako egoerak eta indarrez bultzatuko du ikastolen proiektua.

Nafarroako federazioak bere alde-tik kanpaina bat jarri du martxan Gobernuaren asmoak honetan geldituzeko.

ETXALAR

Jauregiko alderdian bi pirotegi eraikitzen ari dira

ISABEL & EMMA

Bakoitzak 55 m. luze eta 8,5 m. zabal izanen dituzte. Eraikuntzak haragin batzuk eta bertan lanean ari behar dutenen artean egingen dituzte.

Momentuz 5 sozio dira baina luzarora bertze 5 gehiago izanen omen dira. Nabe bakoitza prestaturik dago piroak gizen, hil, lumatu eta azkenean hozkailuz bertan hozteko.

Piro txitoak Martikori erosita gizen zezeko prest ekarriko dituzte. Sozio bakoitzak 200-300 piroren lana, txanda bakoitzean, bere gain izanen du. Prozesu honek 18-20 egun iraun dezake. Egun hauetan goizez eta arratsaldez arto egosia ematen zaie. Lehenbiziko egunetan 250 gr. eta azkenekotan 800-900 gr. Ondoren bertako hiltegi edo mataderian hil, lumatu eta hoztu hozkailuan sartuta.

Ahate hauek industriariei saltzen zaizkie, kasu honetan Martikori, berak laboratu eta merkatuan heda ditzan. Piro bakoitzaren prezioa gibel eta haragi kalitatearen arabera markatuko da. Guk dendetan aurkitzen ahal ditugu salgai: gibel osoa, gibela zatitan, gibel-gizena edo foi-gras, izterrak, hegialak, urdai-azpikoa edo magret, e.a.



Ordenagailuarendako ekipo osagarria eta Fax-a erosiko ditu udalak

Orain dela 2 urte Etxalarako Udalak bertze hainbat udalek bezalaxe, ordenagailua eta inprimagailua erosi zituenetik, idazkaritzako lana aparailu hauez bideratzen joan da, oso tresna garrantzitsu eta beharrezkoak bihurtu direlarik. Ordenagailuaren etsairik haundiena argi-indarraren gorabeherak dira, desegin eta hondatzen bait ditu barnean dituen datuak. Hori moldatu nahieran, "bateria" gisako aparailu bat erosteko asmotan dabil Udala.

Bertzalde, Nafarroako Gobernura edo bertze edozein udal edo erakundetara dokumentuak zuzenean igortzeko, fax bat erosteko asmoa dago.

Aparailu honen bitartez, edozein dokumentu aparailu honetan sartu eta nonnahi, bertze fax batean aterako da.

Udal taldeak urteko berri eman du (1)

Urte honetako hilteltzean, Etxalarako Udal Taldeak "joan den urtean egindako lanen balantzea eta aurten egin gogo direnak" izenburuko idazkia argitara eman du. Idazki hau etxe guztietara banatu da. Iaz egindako lanak eta aurten eginen dituztenak sei ataletan bilduta azaldu dizkigute. Laburbilduz, honela agertzen dira:

1.- Azpiegitura lanak eta inbertsioak: a) *Baserrietako bideak:* 19 kilometro breaztatu eta zementoztatu dira, 73.500.000 ptatak. kostuz. b) *Igerilekuak:* presa ondoan egitea pentsatuta dago eta 34.000.000 pzt.

kostako lirateke. d) *Eskola berriak:* heldu den ikasturterako bukatuak egonen dira; kostua 42.800.000 ptatak. Nafarroako Gobernua eta Hezkuntz Ministeritzaren artean oradainduko dute. e) *Frontoia:* argiak jarriko zaizkio, 1.680.000 ptatak. kostuz. (segituko du).

2.- Hirigintza edo urbanismoa: Norma Subsidiarioak. Landaburu aldeko urbanizazio proiektua. Eskola eta Kirol-jostalekura joateko bide-sarreak. Piru produktuen elaborazio lantegia eta gasolindegia Latsabe aldean.

3.- Zabor bilketa: hemendik aintzinerat, karrikan, astean hiru aldiz eta baserrietan astean behin bilduko dituzte, eta orain arte herrian dauden zabortegi inkontrolatu guztiak itxi eginen dira, zabor-ontziak jarriko direlarik.

ARANTZA



Inauterietan gaztetxoak protagonista

JON LARRETXEA

Pasatuak ditugu jadanik inauteriak eta aipatu behar denetik eduki dugula, batez ere azkenaldi honetan hain urri daukagun euria ere.

Hala ere aipagarriena gazte-gazte-txoen partizipazioa izan da. 13-14 urteko neska-mutilak hor ibili dira akordeoia hartu eta baserri txoko guztietara besta giroa eta alaitasuna

eramanez.

Larunbatean egin zen mozorroten konkurtsoan ere, eurenak izan ziren mozorrorik politenak eta eurek eraman zituzten sari gehienak.

Beraz, gaztetxo hauen humorea ikusirik, erran daiteke badagoela itxaropenik eta oraindik inauteriek bizi luze eta oparoa izanen dutela Arantzian.

Bertso saio bikaina

Aipatzekoa da ere, Andoni Egaña eta Xabier Euskitzek eskeini ziguten bertso saio bikaina. Maila izugarria, humorea eta ironia erabiliz, pil-pilean jarri zuten giroa. Egitan gustora gelditu zuen Aranaztar entzulegoa.

Udalak bi langile kontratatuko ditu

Udalak bi langile kontratatzeko asmoa du INEM-en laguntzaz. Langile hauek, mendiko bordak moldatzeko, abereentzako aska berriak eraikitzeko eta bertze zenbait hobekuntza egiteko erabiliko omen ditu Udalak. Obra hauek egiteko Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin ere kontaktzen da.

Udalarentzat lan egiten zuten arkitektoari kontratua bertan behera utzi zaio

Arguizoniz jaunari, kontratua kentzea erabaki du Udalak.; horretarako eman duen arrazoia, gizon honek azaldu duen arduragabekeria izan delarik.



Zerunetan 500 planta ebatsi

Aintzineko kroniketan aipatzen genizuen bezala, suteei aurre egiteko eta mendiak berreskuratzeko asmoz, zenbait lan burutzeko erabakia hartu zuten Udalak eta Nafarroako Gobernuak.

Zeruneta ondoan atera berria den mendia birplantatzea izan zen berexitako lan bat; dagoeneko zulatuta dago terreno guztia. Baina, ustegabeko bat

gertatu zen pasa den astean. Mendietako zeladorea lanen gainbegiratzea egitera joan zenean, 600 haritz planta ipurditik ateri eta bazterrean paketetan landatuak zeudela eta bertze 500 ebatsi zituztela ohartu zen.

Gimnasia kurtsilloak

Bortzirietako Kirol Koordinatzaile eta Igantziko Udalak bultzaturik irekita dago epea helduek gimnasia egiteko. Jendeak eskatuta hartu da inizatiba hau eta inoiz egin ez denez, arraso interesgarria izan daiteke. Epea

martxoaren 4ean bukatuko da eta gimnasia egiteko egunak asteartea eta ortziraletan izanen dira Martxoaren 7tik aintzinerara; ordua arratsaldeko 7,30etatik 8,30etara izanen delarik.

Argiaren obren adjudikazioa

Azken egunotan Udalak egindako Batzar Berezian, argiaren obren adjudikazioa zen gai nagusia. Nahiz eta ez izan merkeena, "Lumen" enpresak bidalitako eskeintza ontzat ematea erabaki zen; batez ere zenbait gauza egiteko herriko jendea hartzeko eskeintza egin zuelako. Obrak bukatzeko epea 180 eguneko izanen da —adjudikazio egunetik hasita—.

Etxe berriak egiten hasi

"Landman" promotorak bultzaturik, familia bakarrerako 8 etxebizitza egiten hasiak dira dagoeneko. Duela aste batzuk lurak mugitu zituzten eta orain zimentazioa egiten ari dira.

Herriko Etxean aurkeztutako aurrekontuaren arabera, garesti xamarak aterako dira etxe hauek, 10.000.000tik gora beti ere. Kontutan harturik ez daukatela baxerarik, zeuok atera kontuak!

SUNBILLA



Luze gabe, pizina izanen da herrian

Otsailaren 2ko Udal Plenoan onartuko da lurra erostea

PATXI PETRIRENA

Hitz emana du dagoeneko Sunbilla Udalak 2.300 m²-tako lur zati bat erostea, 85 x 30 metrotakoa gutti goiti beheiti, estazioko pisuetatik uhaldera bitarteko sailean. Oraindik erabaki finkoa ez bada ere, seguruenik pizina egingen da.

Erosiko den lur hau Indinabaitakoa da, eta 6 milioi inguru kostako zaio herriari.

Mendi erreetan birlandatze lanak hasiak dira

Lau Herrietako mendian erretako pinu guzien salmenta burutua da eta



landatze lanak ere hasiak dira, Lau Herrien kontura oraingoz. Nafarroako Gobernuak noizbait laguntza eskeini-ko du, baina eginbehar hauek pre-
miatzakoak dira eta lehenbailehen has-
tea hobe.

Haritz amerikanoa eta pagoa sartu-
ko da gehienbat, baina pinua ere lan-

datuko omen da berriz zenbait leku-
tan.

Istripu larria baserrirako bidean

Patziku Bazterrika, Martintzene-
kobordakoa, larriki zauritua gertatu
zen bere kotxearekin etxerako bidetik

erreka amiltzean. Arratseko 8,30ak
aldera erori bide zen, eta eskerrak ordu
bat geroago herri aldera heldu zen
norbait argiez ohartu, gertatutakoa zer
zen ikusi eta abisua eman zuen. Han-
ka eta matel-hezurra hautsiak, golpeak
nonahi eta odol franko isuria zuen.

DONEZTEBE



Emakumezkoetan, Maria Luisa Irizar andoaindarra izan zen irabazlea

1.107 Laisterkalari Euskadiko Kross Txapelketan

TXEMA ALDABE

Orain arte ez da egundaino Donez-
teben ospatu otsailaren 18an bezalako
Kross txapelketarik. Euskadiko Kross
Txapelketaren antolakuntza aurtengoan
Nafarroari zegokiola eta, Erreka
Kirol Elkarteak, Kirol Koordinatzaile-
leekin batera, lortu zuten Donezteben
antolatzea. Eguraldia ezin hobea igan-
de horretakoa bai ikuslego bai laister-
kalarientzako. Denetara 1.107 laister-
kalarik parte hartu zuten zazpi maila
ezberdinetan. Azken 3 probak izan

ziren ikusmin handia sortu zutenak,
hauetan Euskadiko laisterkalari hobe-
ren eta entzunenak aritu bait ziren.
Junior mailan, iazko txapeldunak,
Doneztebeko Santi San Migelek
bortzgarren postua lortu zuen, irabaz-
learengandik 11 segundutara. Emaku-
mezko senior mailan, berriz, M. Lui-
sa Irizar andoaindarra izan zen irabaz-
le eta gizonezkoetan, hain ospetsua
den Juan M. Garin irabazle eta bere
anai Peio bigarrena. Ikusgarria bene-
tan beraiek egindako laisterketa.
Hemengo laisterkalarien sailkapena

hauxe izan zen: *senior mailan*: Mattin
Juanikorena 166., Manolo Otero 44.,
Joserra Aldabe 135., *junior mailan*: M.
Carmen Ariztegi 14., Juan Alberto
Migueltoarena 37., Mitxel Aginaga 35.

Erreka partidurik galdu gabe

Doneztebeko *Erreka* eskubaloi
ekipoa izugarritzko kanpaina burutzen
ari da aurtun. Orain arte 14 partidu jo-
katu ditu, horietatik 13 irabazi eta bat
berdindu. Horrela jarraituz, badirudi
aurtengoan lortuko duela mailaz igot-
zea, nahiz eta *Txantrea* ekipoa ere hor
ibili pare parean eta puntuz. *Erreka*
igoko balitz, heldu den urtean estatu
mailako lehendabiziko mailan jokatu-
ko luke.

Martxoaren 11ean, sekulako apustua Elgorriagan

Martin Gigi eta Panpullo dira lehia
honen protagonistak. Izan ere, laster-
kalari hauek eguerdiko ordu batetan
eta 10 kilometrokoa izanen den zirkui-
to batetan (mendian eta karrikan bar-
na) neurtuko dituzte beren indarrak.
Diotenez, irabazleak milioi erdiko
saria sakeleratuko omen du.

ITUREN



Nafarroako Bertsolari txapelketaren lehenengo kanporaketa Iturenen ospatu zen

IBAN ISASI

Otsailaren 24an, larunbata, eta gaueko 10etan Udaletxeko Erabilera Ugarirako Gelan burutu zen urte honetako txapelketaren lehenengo kanporaketa izan dena. Bertan ikusi ahal izan ditugu Iturengo Fagoaga anaiak (Eusebio eta Joxe Mari), Iru-

ñeko Zeberio, Arraiozko Bittor Elizagoien, Olano eta Baigorriko Laka.

Rustikako katastroa

1990eko urtarrilaren 13an izandako udal bilkuran aprobaturakoaren arabera, alkatea, Isidro Bazterrika eta J. A. Altxu zinegotziak izanen dira udala

ordezkatuko dutenak horretarako dagoen komisioren. Gauzak honela, katastroa 15 egunerako jendearean jarri da.

Askapenari diru-laguntza

Iturengo Udalak bere azkeneko bilkuran 5.000 pezetatiko laguntza eman zion Askapenari, honek El Salvadorren askatasuna eta giza eskubi-deen alde egiten ari duen lanagatik.

Bi zinegotzi berri Udalan


Orain dela hilabete batzuk udaleko Talde Berriaren 2 zinegotzik beren kargua utzi zuten eta otsailaren 3ko bilkuran bertze 2 zinegotzi berri sartu ziren: Fco. Jabier Altxu Iparragirre eta Eusebio Elizalde Mariezkurrena.

F. J. Altxu Mendi-komisiora pasatuko da eta Eusebio Elizalde Hirigintza komisiora.

Pistzifaktoriari projektua eskatu Ingurugiro Sailak

Errekara isurtzen dituen urak garbituko dituen "baltsa" eraikitzeko projektua eskatu dio Nafarroako Gobernu Ingurugiro Sailak Iturengo Pistzifaktoriari. Honen berri eman zen otsailaren 3ko Udal-bilkuran.

ZUBIETA



JUAINAS

Hamabostaldi hontan ez da deus haundirik izan, Zubietan... erreflexiorako hartu bait dugu atsedena! Mendaurren puntan dagoena begiratu, baratzeko apainketa batzuk eginez... harata eta honata... denbora pasa!

Hausnar bi...

Ondoko herriengandik sortuak, alegia! Aranztarrak ari dira berriz, zirika eta zirika, oraingo hontan hai-zeen erruak guri bota nahiean. Kasu



eman! Lapurtutako lur-eremueta eraikitako postuak babesteko —herria bidenabar— “kortabientos” delako hori jarri nahi izanen bait dute... Zubietako mendietan!

Itundik bestea... jesus-jose-ta-maria! Hauxe duk/n lana! Harriduraz jakin izan bait dugu —*tipi-tapan*— idazkaria kontratatu dutela berriz, erdi gezurra edo egia erdipurdikoa: izatekotan Pello Oscozen erdia kontratatu dute, beste erdia Zubietan gelditu

baita. (...) Nere soberakeria izanen da, dena. Kiosko berria, bederen, erdibana eginen bait dugu, seguraski, fietetako behar-beharrezkoa!

Dena den eskerrak ondoko herriei, papera betetzeko aitzakia ematen digutela.

Egoera larria...

zerbitzuena, hain zuzen ere: zaborrak, garestiak eta ez hagitz onak, ETBkoa haize eta lapurren arabera-

koa... Euskara eta kirola, elbarrien bidez modua daramatela... sendotu ezinanean, laguntza zikoitza ematen diegulako... Zerbitzuen Mankomunitatea, paratuko ote da martxan!

Murmurio ugari

Hori bai egon dela... hemen lekurik ez duten horietakoak. Ez bait dugu *tipi-tapa* bihotz-aldizkaria bihurtu nahi, inolaz ere! ...kumunean, izkurtuan leitzen den horietako bat. Itsuski eginen luke! Ez al da horrela?

LEITZA

Bazkal-apalondotan, txikiteoan...

Lagunartean kantatzeko espresibide galduaren atzetik

Kantu eta bertso zaharrak ikas eta aritzeko ikastaroa

GOTZONE & ANTON

Iragarrita dutenez, Leitzako Euskaltegia kantu eta bertso zaharren ikastaroaren antolaketa lanetan ari da, herritar guzietan irekia dagoena.

Horretarako, erakusle moduan arituko diren zenbait herritar kanta zaletu porrokatuarekin harremanetan jarriak dira jadanik. Besteren artean, Eskubi, abadea, Arraras, Sestorain eta Tiburtzio dira izen aipagarrienak. Hauek gurasoengandik jasotako bertso eta kantu zaharrak, eta bereziki ingurukoak direnak, irakatsitako dituzte modu etxekoi batez. Irakasteaz gainera kantu eta bertso bakoitzaren jatorria azaltzea litzateke beste lanetariko bat.

Asmo askoren artean hau litzateke lehena martxan jartzen. Alfabetatze lanetan sekulan aritu ez direnak erakartzea eta modu eroso eta atsegina batez alfabetatzearen beharraz jabetaraztea luke bereziki helburutzat.

Aitzaki bikaina izan daiteke kantutarena. Izanez ere Leitzan betidanik kanturako izugarrizko zaletasuna

izan baita. Atzera begiratu hainbat esperientzia daude horren lekuko: zenbait urteren buruan aritu zen *Jeiki* abesbatza (duela 6ren bat urte desegin zena), *Asketa* haur abesbatza (bere gorabeherak ere izan dituen), Nafarroako Kantu Txapelketetan parte hartu izan dutenak ere dextente izan dira, Euskal Herrikora pasa eta lehen saria eskuratzera inoiz iritsi direnak *Izar* bikotea eta *Kirkir* taldea direlarik, e.a.

Hala ere, eta hau oso argi uzten dute, “*zaletasuna izan, izan bada*

ere, kantu zaharrak gure aiton-amonengandik ez dira guregana pasatu, gazteongana. Hor, tartean, etendura bat eman da”. Horrela, alfabetatzearen prozesuan urrats bat izatearekin batera, bide batez herriko eta inguruko bertso eta kantutegi zaharra berreskuratzea litzateke iniziatiba honen sortzaile izan direnen nahia.

Interesaturik dagoenak Euskaltegia zuzendu besterik ez duela gogorazten dute, edo bestela, 610776 telefonora ere hots egin dezake.



Azkenik, Polikiroldegia bai

Ibili eta buelta, azkenik Polikiroldegia egitekotan daude, behintzat hau idazten ari garenean. Diru mailan herria itto-ittoan dago (obra haunditan sartua bait da), baina Polikiroldegi baten beharra ikusten zen. Kokalekuak izugarritzko joan etorriak sortarazi ditu, baina azken orduan HB-k plaza-ratutako alternatiba guztiz onartua

izan da batzuen eta besteen aldetik.

Aurrera-ren egoitza berregin nahi

Aurrera Elkartearen azken Batzar Orokorrak erabaki duenez, bere egoitza soziala berregiteko lanak berehala hasiko dira. Duela urte batzuk hiru milioi ordainduta eskuratutako egoitzan orain hamar milioi sartuko dira,

toki eroso eta goxo bat antolatu asmoz.

Leitzar gazte bat, arbitro profesionala

Mikel Iturrarte, 18 urtetako Leitzar gaztea, arbitro profesionala izan nahi du. Ikastaroa eta frogak Iruñean gainditu dituenek jadanik partiduak arbitratzen hasia da Jubenilen Liga "Nazioalean".

BAZTAN**Elizondoko Zonaldeko Epaitegia desagertzeagatik, Baztango Udalak bere desadostasuna agertu zuen**

Inguruko herriei akordio honen alde jartzea eskatu zaie

M.K.T.

Elizondoko Juzgadoa orain arte zonalde osorako Epaitegi bezala aritu bada ere, Abenduaren 28tik aintzinerat, zituen ahalmenak kendu egin zizkieten Bake Epaitegi bezala geratuz. Hori dela eta, akordio baten bitartez Baztango Udalak bere desadostasuna agertu dio Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Justizi Epaitegi Gorenari. Aipatutako akordioa, Epaitegi honen desagertzeak zonalde honek dituen beharren kaltetan jotzen duela erraiten da. Aldi berean, Malerreka, Bertizara-

na eta Bortzirietako Udalei, akordio honen alde jartzea eskatzen die.

Sunbilla eta Berako Udalak adostasuna agertu dute

Elizondoko Juzgadoa desagertzeak kalte haundiak suposatzen diela eta, dagoeneko Sunbilla eta Berako Udalak beren adostasuna agertu dute akordio honekiko. Izan ere, orain arte Elizondoko Juzgadoak tramitatzen ziren arazoak, orain Iruñean bakarrik egin daitezke; haraino joan behar izateak

ekartzen dituen zailtasun eta denbora galtzearekin.

“Irratiz jorratuz” Xorroxin irratia-aren hamabortzaldia

Martxoaren 12tik 26a bitarte programazio ugari bezain aberatsa eta inbuktiboa eskeiniko du Xorroxin Irratiak. Hona hemen programazioa osatuko duten ekitaldirik nagusienak: *Mahai inguruak*, kultura, kirolak, bertsolaritza, artista izatea, nekazaritza, ekologia, irakaskuntza, sindikatuetak, emakumea, Udal arazoak, e.a. gai bezala agertuko direlarik; *Elkarrizketa* Arkupekoekin; *Hitzaldiak*, nekazaritza, euskeraren egoera, Baztango historia, e.a. Horretaz aparte aipatze-koak dira Martxoaren 18an, igandea, eginen den bazkaria eta besta, eta Martxoaren 25ean, igandea baita, Mariano Izetari eskeiniko dioten omenaldia.

Ana Larrui Margo Lehia- ketaren irabazle

MAÑONE

“Claustro” izeneko kuadro batekin, Elizondoko Ana Larrui izan zen lehia-keta honen lehen saria eramane zuena. Tomas Sobrino “Paisaje Baztanés” lanarekin eta Fernan Gorostidi “Texturas y traumatismos” lanarekin finalista gelditu ziren.



Baztango VIII. Esku-Pilota Txapelketa Anizen jokatu zen

JUANJO ATXA

Baztango Pilota Eskolako arduraduna

Otsailaren 18an Anizko Mendiarte Pilotalekuan, Baztango VIII. esku-pilota txapelketaren finala jokatu zen. Baztango Pilota Eskolak antolatutako Txapelketa honetan 82 bikote aritu dira. Hauek izan ziren emaitzak:

Umeetan: Zelaieta - Etxabarri (Oronozkoak) 18, Bidegain anaiak (Elizondokoak) 17. **Haurrak:** Elizalde (Arizkun) - Goñi (Mugaire) 18, Altzuarte - Otxandorena (Oronotz) 16. **Gazte-
txoak:** Irigoien - Almandoz (Lesaka) 18, Irigoien - Kastro (Lesaka) 12. **Gazteak:** Larralde - San Miguel

(Lesaka) 22, Mariezkurrena (Iruñea) - Goñi (Zubiri) 18. **Helduak:** Arbizu - Soraluze (Iruñea) 22, Perez - Tirapu (Atarrabia) 20.

Dominak eta trofeoak banatu ondoren "lunch" eta bazkari eder batekin eman zioten bukaera lau hilabete luze iraun duen lanari.

ZUGARRAMURDI



Zugarramurdi Urbiako menditik

Bixenteneko Agustinak bortzeko primitiba irabazi

KOIRO IRAZOKI

Zugarramurdi ez dago eginik estatistikarik jakiteko zenbat diru jokatzen den kiniela, loteria, primitiva eta holakotan, baina seguraski hemendik aintzina ikusiko dugula lehen baino

gehiago jokatzen dela. Zergatik? urtarilaren azkeneko astetik hurat badugulakoz irabazle bat herrian: Bixenteneko Agustinak bortzeko primitiba jaso du, kilo erdi bat pasa diru. Ez dago gaizki!

Etxelekukoak gasna fabrika muntatzen ari

Iduri du laster hurbilean ardi-gasna fabrika bat izanen dugula: Etxalekuan muntatuak dituzte gasna egiteko behar diren makinaria eta tresna guztiak. Gainera laguntza ere seguraski ez dutela falta izanen, 6 seme-alaba etxean dituztenez. Oraindik ez dira gasna egiten hasiak eta gainera ez dakigu aurten gasna egiteko bolada hoberena ote den, ardi-esnea aski garesti dagoelakoz (115 pza.). Batez ere, suerte ona izan!

Zugarramurdi harrিতuta gelditu gara Gamioren heriotza jakin dugularik. Gamio (hemen jende guttik ezagutzen zuen Francisco Arburua bezala), pertsona ezaguna zen herrian, maiz hemen barna ibiltzen zelakoz eta ia-ia Zuamurdiar bat bezala ginuen. Arras uste-gabea izan da ez ginakigulakoz batera eri edo gaixo zegoenik eta derrepente halako berriak ailegatu. Halako kasutan pentsatzen gelditzen zara...

SARA

Betelu, omenaldi guziekin ehortzi dute Arrangoitzeko Elizan

MIXEL

Azkeneko alean aipatu ginuen Betelu, Sarako Zazpiak Bat dantza taldeaz arduratzen zen erakaslea. Lan hori ez zuen bakarrik Saran egiten

bainan ere inguruko herri frangotan.

Pena haundi batekin jakin dugu, hil zaigula joan den astean hirurogeitabortz urtetan. Segur aintz elkartek

horren galtzea zinez sendituko dutela, huts haundi bat utziko baitu bere inguruan.



Merezi zituen omenaldi guziekin ehortzi dute Arrangoitzeko elizan eta gainerat haren nahiak errespetatuz: hil-kutxa pilota plaza erdian ezarririk, berak agertarazia zuen "Mutxiko" hori, dantzatu diote.

Milesker beraz Betelu zure euskaldun gizontasunaz.

"Etxola", huna Sarako gaztetxearen izena

Sarako 30 gazte elgarretaratu dira joan den larunbatean, gaztetxeko bulegoa bozkatzeko. Honen buru Manu Fagoaga, laguntzaile Aline Oronoz (hau erdi zugarramurdiarra), idazkariak Françoise Chaulet eta Sophie Elizalde, diruzainak Battit Fagoaga eta Jacqueline Aranburu. Gazte hauek hasi zaizkigu tipi-ttapa; asmo dugu indar pixka bat atxemanen dutela bai beren baitan eta bai beren inguruan, aintzinerat jarraitzeko.



Daniel Landart azalpenak ematen gaztetxoei

Jadanik apirilaren 30ean, Olain elkarteak lagundurik, antolatuko dute Gau Pasa bat. Aintzinean entzuten ahalko da "Rock" talde ezagutu bat.

Bertsolaritza

Otsailaren 9tik 11rat, jadanik aipatu bezala iragan dira hiru egun bertso-laritzaren alde.

Erran behar da, jende puska bat ibili zaigula, bai eskolaren aldetik, ehun bat haur etorri dira Daniel Landart-en entzuterat eta bai bertsozaleen aldetik, berrehun bat lagun bildu baitzagu Omordian saioarendako.

Segur zerbait interesgarri bazela!

Arrastooan

Leitza-Imotz, Bortzirriak, Sakana, Ultzama eta Antsoaingo Udal-ordezkariek eta IKA-koek Nafarroako Gobernuaren jarrera salatu zuten

Sakana, Leitza-Imotz, Ultzama, Antsoain eta Bortzirietako ordezkariak eta IKAKo ordezkari batek prentsaurrekoa eman zuten, Otsailaren 20an, Iruñean.

Bertzeak bertze, Nafarroako Gobernuak Euskara Zerbitzu Teknikoentzat eskeini duen diru kopuru eskasa salatu, Udaletxetako langileek euskalduntzeko plangintza zehatz baten beharra azpimarratu, herrialde guzira itzultzaile zerbitzu bat osatzeko eskaera eta helduak euskalduntzeko dekretuaren zenbait aspektu kritikatu zituzten.

Prentsaurrekoaren aurretik, Nafarroako Gobernuaren ordezkari

kari diren Estebe Petrizan eta Gilermo Herreroekin elkarrizketa bat izan zuten, puntu guzti hauek eztabaidatzeko. Bilera hau Roman Felones eta Aladino Colinekin eskatua bazegoen ere, ukatu egin zuten eskaria; honela Gobernuak norainoko garrantzia ematen dion arazo honi erakutsiz.

Diruari dagokionez, Nafarroako Gobernuak 50 miloi bakarrik eman nahi ditu urte osorako —iaz, azkeneko 3 hilabetetarako 30 miloi eman zituen—.

Udaletako ordezkarien ustetan, Udal-langileen alfabetatze eta euskalduntzeari dagokionez, Gobernuak berak burutu beharko

luke plangintza; oraindik orain bete ez duena.

Modu berean, helduen euskalduntze eta alfabetatzea dela eta, Gobernuak jartzen dituen baldintzak gehiegizkoak dira Udal eta IKAKo ordezkari hauen ustetan —kopuru minimoa, irakaskileen titulazioa...— ematen duen dirua (69 pzta) bertzerik ez dela kontutan hartuta.

Nafarroako euskal eremuko udal-ordezkari hauek, euskararen aldeko zerbitzuak sortzeko beharra agertuz, deialdi bat zabaldu diete Nafarroako gainontzeko udalei.

MIKEL LEGARRA

Martxoaren 3an Lesakan

Nafarroako XIX. Bertsolari Txapelketa

Lehen faseko lehen ekitaldia Iturenen ospatu zen

Otsailaren 24ean, larunbata, eta afalosteko giro atseginean eman zioten hasiera talde honetako sei bertsolariek, lehen faseko lehen ekitaldiari.

Guztira 19 dira lehen fase honetan parte hartuko dutenak eta hauek 9 izanen dira bigarren fasera pasatuko direnak. Iturengo sailkape-

na horrelaxe gelditu zen: 1.go Bittor Elizagoien, 2.a Olano; 3.a Eusebio Fagoaga eta 4.a Jose Mari Fagoaga. Hurrengo saioan, martxoaren 3an, Lesakako Arrano Elkartearen ospatuko da eta bertan, Madariaga anaiak, M. Jaso, A. Martikorena, J. Yantzi eta B. Perurena arituko dira. Ordua, gaueko 10ak.



Frantxisku Graziarena, otsailaren lehen 100 urte bete zituen Sunbildarra, Otsailaren 24ean hil zen.

EZKONTZAK

Jacques Henri Leopold Dejoutter eta **Jacqueline Louise Legrand** (Sarakoak) otsailaren 15ean Saran.

JAIOTZAK


Oihane Lameiriñas Ortuoste, Elizondokoa, otsailaren 6an.
Garazi Urtasun Eraso, Irurita-koa, otsailaren 4ean.
Carlos Arozarena Marin, Elizondokoa, otsailaren 9an.
Elie Elorga, Sarakoa, urtarrilaren 24ean.
Jon Arrieta, Sarakoa, urtarrilaren 29an.
Marina Goienetxe, Sarakoa, otsailaren 15ean.
Maidor Amandoz Indakoe-txea, Arantzakoa, otsailaren 17an.
Leire Barrutia Elizalde, Berakoa, urtarrilaren 30ean.
Naroa Mendiberri Altzoz, Berakoa, otsailaren 4ean.
Joseba Lazkano Akaraz, Leitzakoa, abenduaren 30ean.

HERIOTZAK

Jose Aranburu Unsain, Leitzan, otsailaren 11an, 75 urte.
Sebastian Irurtia, Leitzan, urtarrilaren 31ean.
Ramona Portu Portu, Lesakan, otsailaren 15ean.
Josefa Tapia Tapia, Lesakan, otsailaren 4ean.
Andoni Garralda Erasun, Iturenen, otsailaren 8an, urte batekoa.
Fco. Salazar Erasun, Beran, otsailaren 20an, 78 urte.
Jean Larzabal, Saran, urtarrilaren 31ean.
Martin Jose Otxandorena Baleztena, Sunbillan, 71 urte.
Baleriano Manterola Petrikorena, Sunbillan, 85 urte.
Sergio Zurutuza Etxenike, Elizondon, otsailaren 16an.
Felisa Palacio Cincambre, Elizondon, otsailaren 10ean.
Fermin Irungarai Etxeberria, Arizkunen, Otsailaren 8an.
Ramon Aranburu Olaizola, Elizondon, otsailaren 6an.

Zaku-zar

Arraultze-arraultze, zingar arraultze, bat ez bada bertze



Telletxea Argazkia - Lesaka

Honetan ibili dira haurrak, goitarrak, fraindarrak,... etxez-etxe, baserriz-baserri; aspaldidaniko tradizio zaharrei eutsiz. Batean arraultzeak, bestean zingarra edo gazta eta intxaurrak, baita sosa ere; azkenean lagunen arteko afa-ri-berendua egiteko.

Era honetan iraun dute Lesakako inauteriek orain dela urte aunitzetik, Tolosa, Lantz, Ituren eta Zubietan bezala, oztopo guztiak gaindituz. Baina Lesakako inauterietan bertze zerbait gehiago ere badago: Zaku-zarrak; inautetako igandean egiten den ekitaldirik garrantzitsuena, herri osoa eta inguruetako jendea mugituko eta erakarriko duena.

Noiztik datoz zaku-zarrak? Noiz hasi ziren? Hemen eta han galdetuz badirudi bi aro edo etapa ezberdin bereiz ditzakegula: gaur egunean ezagutzen dugun bezala eta 1936-ko gerratearen aintzinetik. Gaur egunean "zaku-zaharren" irtenaldia finkatutako egun batean gertatzen bada ere, ez omen zen horrela 36-a baino lehen.

KARLOS SANTIAGO

Errege eguna pasa ondoren, eta ifauterietako astelehena arte edozein jai egunetan ikus zitezkeen, baina ez orain bezala. Hamar hemendik, bertze bortz hortik, bertze hiru beranduago...

Gerrate zibilaren ondotik desagertu ziren eta orain dela 20ren bat urte berriz agertu ziren. Orain frontoian prestatzen dira baina lehen eta orain dela denbora gutxi arte, edozein lastategitan.

Hor elkartzen dira mutilak eta hiru zaku erabiliz (bi hanka banarentzat eta bestea gorputzarentzat), burua eta besoak ateratzeko zuloak utziz, belarrez bete (garai batetan iratzez) eta josten dira. Hiru zakuen elkarketa neska batzuren zerbitzuari esker egiten da. Beraiek arduratzen dira, bai zakuak liztariaz josteaz baita herrian bama berriz josteaz ere lisatzen badira. Ondoren buru gainean lastozko zapela paratu eta aurpegia zapi zuriz estali, begi eta ahoarentzat zuloak irekiz. Eskutan pizontzia, aintzinean traban jartzen edo zirikatzten duenari emateko.

Dena prest dago, Banda bakarrik falta da. Hau heltzean desfilea hasiko da eta herri osoan zehar ibiliko dira, vals bat hemen, jota bat hor, ardo trago bat han... Horiekin batera, Lesakako ifauterietako bertze

personeiak: *mairuak* (zoritarrez gero eta gutxiago); beraien gorputzak kolore aunitzeko zintaz estalirik, zaku zaharrak lagunduko dituzte.

Azkenean plazara iritsiko dira eta aziendentzat ezarritako zirgiletatik helduz, hasiko da nerabcen besta. Hanketatik hartuz ahal den indar handienarekin tiraka hasiko dira, urratu arte. Orduantxe "belar-bataila". Belarra hemendik eta handik, batzuek bertzeei bota, bertzeak lurrean iraulka... Une batzuz, Lesakako plaza ba-

serriko ganbara bilakatuko da. Handik batek baino gehiagok dutxara abiatu beharko du haznahia eta hautsa astintzeko beharrea.

Eta horrela irauten du ifauteetako igandeak Lesakan. Batzuentzat espektakulu bihurtu da eta formalismo eta ordena gehiegian erori da. Era guztietako eritziak badaude ere, gauza bat argi dago: "zaku-zarrak" lesakarren sentimendu barrenean daude eta beraien tradizioak eskeintzen digun espektakulo ikusgarria da.



Telletxea Argazkia - Lesaka

Zentzerock: *mendialdeko rockanrrola*

Gutti gora-behera hiru urte igaro dira rock musika lantzen hasi zirenetik. Oskarrek bateria, Sanbak kitarra eta ahotsa, Zarbok baxua eta Etxartek ere kitarra. Lehen hiruak Doneztebekoak dira eta laugarrena Lesakarra. Berrogeitamar kontzertutik gora eman dituzte, denak Nafarroan. Beren ametsa Donostiako Belodromoan aritzea izanen litzateke. Txantxak alde batera utzita, badute Gipuzkoa aldean jotzeko gogorik, batez ere gaztetxe edo horrelako tokietan.

Bizpahiru maketa badituzte grabatuak eta duela gutti LP bat kaleratu zuten.



Nolaz bururatu zitzaizuen horrelako rock talde bat sortzea?

Inauteri batzuetako asuntia izan zen. Orga bat prestatu genuen bertan musika talde baten itxurarekin atera ginelarik, kitarrak eta egurrezkoak baziren ere kaseta batekin martxa eder-rra montatu genuen Doneztebeko karraketan zehar. "Beti heavy" deitu genuen. Hasieran nola edo hala kitarra eta tresna zahar batzuk erosi genituen eta haiekin jotzen genuen.

Rockaren munduan estilo edo joera ezberdinak agertzen dira. Zein eratako musika egiten duzue zuek?

Guk batez ere, rockanrola egiten dugu. Gauza aunitz erran dira gure estiloaz, Barrikadaren antzekoak garelako edo Hertzaingak bezalakoak, guk Zentzerok estiloa dugu, **mendialdeko rocka** egiten dugu. Jakina, aipatutako talde horietatik eta kanpoko bertze talde batzuetatik zenbait joera gureganatu ditugu, hori denegi gertatzen zaie.

Jendeak nola hartzen du egiten duzuen musiká, jarraitzaile aunitz duzue?

Jendeak, ongi, inork ez baitigu kasurik egiten. Beno bai, badago gustatzen zaionik ere. Modu guzitan Malerrekan baino gehiago Elizondo aldean; zenbaitzuk ezagutzen dituzte gure kantak.

Eta orduan zerk bultzatzen zaituzte jarraitzera zuen lanarekin, pentsatzen dugu ez dela diruarengatik izanen?

Batez ere afizioak, diruagatik ziur ezetz. Garbi utzi behar da gu bezalako talde batek ezin duela bizi musikatik eta zorrik ez baduzu egiten kontent. Tresna nahiko onak edukitzea lortu dugu, baina horixe bakarrik.

Kanpotik begiratuta badirudi rockaren mundu hori beheiti doaiela, nola ikusten duzue zuek?

Bai, barrutik ere nahiko beltz ikusten dugu. Duela urte batzuek talde guztiek kontzertu pila ematen zuten. Orain ber-rik, arrunt ona ez bazara leku guttitatik deitzen zaituzte. Rockak ez du jada jarraitzaile aunitz alderdi honetan. Euskadi mailan antola daitekeen kontzertu-

rik hoberena —M-ak eta Deliriums Tremens— prestatu zuten Erratzun eta jende aldetik erantzuna eskas samarra izan zen.

Beraz, etorkizuna beltza ikusten duzue?

Bai, bai, arrunt beltza. Guk hortik dirua ateratzeko ametsik ere ez dugu egiten. Pixka bat mugituz gero kontzertuak ematea lortzen duzu. Azken urte hau txarra izan dugu, Sanba soldaduskan egon da eta emanaldi gutti egin ditugu. Orain hasiko gara berriro bazterrak mugitzen. Modu guzitan erran behar da guk ongi pasatzen dugula, lagunak ere egiten dituzu; horrek bultzatzen gaitu batez ere aurrera jarraitzea.

Beraz badakizue, jaialdiren bat antolatzen baduzue Zentzerock-eko lagunak prest dauten edozein lekutan jotzeko. Kontaktatzeko tfno. hauetara deitu: 594115 Sanba eta 594463 Zarbo.

PELLO ASTIZ

Iaz izugarritzko aurrerapena... aurten atzerapena?

1988-89an egindako aktibitate eta partehartzearen estatistikak

Azken alean azaltzen genuen Eskualdeko Kirol Koordinatzaileak ez izateagatik nolako arriskutan aurkitzen den aurtengo plangintza; kontutan hartu 600 haur txapelketarik gabe daudela arazo hau dela eta. Artikulu honekin eta bertan agertzen diren estatistikekin, kirol arloan izandako aurrerapen izugarria argitu nahi da eta aldi berean, alderdi hauetako kirolari guztiei adierazi —bakoitzak ongi aski daki joan den urtean aktibitateetan parte hartu bazuen—, aurtengo kirol plangintza arriskuan dagoela arazoa ez bada berehala konpontzen bederen.


Eskualde mailan 1988 eta 1989an izandako aktibitate eta partehartzaile kopurua

Eskualde mailan garbi ageri da aurrerapena. Joan den urtean 25 aktibitate berri egin ziren 1.400 kirolari berri mugituz, gehienak helduak eta gazteak. Aipatzekoak dira antolatu ziren monitore ikastaroak (tenis, atletismo, eskubaloia, pilota, saskibaloia, piraguismoa etabar); mendigoizaleen artean egindako aktibitateak, futbol mailan egindakoak, pilota eta eskubaloi mailako txapelketak eta bertze hainbat aktibitate.

Aurtengo plangintza jadanik egina egon behar zuena oraindik ez dago horrela eta osotara zintzilik dago Nafarroako Gobernuarekin komenioa sinatzea, Federaziokoekin monitore ikastaroak zehaztea, Eskualdeko taldeekin datak eta programak zehaztea eta hainbat gauza egin gabe aurkitzen dira; kirol koordinatzaile komarkalarik ez dagoelako.

Zonalde mailan 1988 eta 1989an izandako aktibitate eta partehartzaile kopurua

Zonalde mailan ere nabariak izan



dira antzinamenduak batez ere Bortziriak, Malerreka eta Leitazararen. Ikusten denez joan den urtean lortu zena estatistikak garbi azaltzen dute eta ziur gaude hau irakurtzen duzuenotik au-

nitzek, aipatutako aktibitateetan parte hartu zenutela. Aurten, holako aukerarik ez izateko arriskutan gaude.

MATTARI ALTZUARTE

Bortziritako Kirol Koordinatzailea



XVII. pilota txapelketa bukatu da Beran

ROMAN HARRIBILAGA

Emaitzak:

Paleta gomaz Luis M. Retegi - Karlos Pombar 30, Klaudio Mendiberri - Ramon Zubieta 16. Paleta larruz Miguel A. Sarobe - Pello Irazoki 35, Jose A. Gartzia - Patxi Errandona 33. Eskuz binaka Gorka Re-

tegi - Miguel Altzuri 16, Iban Zubieta - Gorka Irazoki 13; Julen Zelaieta - Joseba Aranibar 14, Mikel Larretxea - Gorka Arretxea 16; Imanol Oiarzabal - Andoni Lasaga 16, Jokin Mitxelena - Angeltxo Aranibar 18; Felipe Saragueta - Joseba Iturralde 18, Aitor Lekuona - Mikel Olazabal 14.

Arantza, Igantzi eta Etxalarko eskolak elkarrekin lanean aritzeko bidean

Antzerkigintza, lan pedagogikoak, kanpaldiak e.a batera antolatuak



Erantzako Eskolakoak izan ziren eguberrian antzerkia prestatu zutenak

Aurten, 1989-90 ikasturtean, aurrerapausu bat eman dugu hiru eskolen artean. Orain arte ere, gehienbat irakasle mailan, zenbait lana elkarrekin egiten genituen: Gelako lanen programaketa bideratu, kurso bukaerako kanpaldiak antolatu. Aurten berriz, ministeritzak bertze irakasle bat bidali digu hiru ikastetxeetarako, honek koordinaketa lana egiten du eta honela aukera gehiago daukagu hiruren artean ekintza bereizi batzuk antolatzeko.

Aipatutako ekintza hauetatik, gusto haundiz hartu dugunetako bat antzerkia da. Nafarroako Gobernuak *Antzerkigintza euskaraz* lehiaketa antolatu zuen joan den azaroan. Irakasleok, eskolarako ideia interesga-

ria zela eta bidenabar diru laguntzaren bat jasoko genuelakoan, plangintza bat prestatu genuen. Plangintza honetan, hiru eskoletako umeek antzeslan bat prestatu eta egin behar dute; Arantzakoak eguberriarako, Etxalarkoak ifnauterietarako eta Igantziakoak kurso bukaerarako. Honela, hiru hilabetez behin herrietako umeak elkartzen dira antzerkia ikusteko eta denbora berean herriak eta eskolak ezagutzeko.

Oraingoz ekintza hau nahiko ongi ateratzen ari zaigu. Urtarrilaren 12an, Igantzi eta Etxalarko haurrak Arantzara joan ziren antzeslanak ikustera. Arratsalde zokuak, kirola eta txokolatada ere egin genituen.

Otsailaren 22an, "ortzegun gizen" a zela eta Arantzakoak Etxala-

rrera joan ziren. Antzerkia ikusi eta gero merendatu genuen besta giro ederrean. Herri xarmangarri hau ere ezagutu genuen ba!

Denen gaitetik Nafarroako Gobernuak diru laguntza dexentea eman digu; 193.000 pzta. gastuentzat eta Arantzako eskolari 25.000 pzta. opari modura antzerkien orijinaltasuna saritzeko.

Elkarren arteko bertze lanak ere aipatuko ditut: Irteera pedagogikoak, aldizkaria, kanpaldiak eta batez ere gure eguneroko lana hobetzeko lantaldeen bilerak. Hauetaz, bertze egun batetan solastuko natzaizue.

GABI GOIA

Irakasle koordinatzailea

Aro berriaren atarian

Hirukoak

Lau elementuak, sua, lurra, airea eta ura, astrologiaren oinarriak dira.

Hamar planetak elementuetan banatzen diren arabera izango dugu biziaren oharmena, eguzkiaren elementuek garrantzi aparta hartzen dutelarik.

Munduan zehar, kultur aunitzek dauzkate lau elementuak beraien tradizioetan, oinarritzko energiaren manifestapen ezberdin bezala definitzen dituztelarik.

Adibidez, Greziako lehengo filosofoiak elementu hauek gizonaren lau fakultateekin erlazionatzen zituen: moralia *sua*, estetika eta anima *ura*, intelektuala *airea* eta fisikoa *lurra*.

Erdi Aroan, elementuak lau *humore* basikoekin erlazionatzen zituzten, eta ondorioz lau temperamentu ezagutzen zituzten: kolerikoa, melankolikoa, odoltsua eta flematikoa.

Fisika modernoak dienez lau dira materiaren egoerak: solidoa *lurra*, likidoa *ura*, gasa *airea*, eta plasma edo ionizatutako energia *sua*.

Bestalde, norbaitez ari garelarik, sutsua, sendoa, arina edota sensiblea hitzak frankotan erabiltzen ditugu.

ARIES, LEO, SAGITARIUS su zeinuak

Idealismoa, nahimena, eta kreatibitatea lantzeko ahalmenarekin erlazionatzen duen funtzioa da *sua*. Zeinu hauetako jendeak dira bizienak, baikorrenak eta

abenturazaleenak. Zintzoak izaten dira eta beraien buruarengan konfidantza handia dute. Daukaten zuzentasun eta zabaltasunarengatik haurrak bezalakoak direla erraten da. Bertze pertsonentzat pizpitak eta pairugabeak edo inpazienteak bezala agertzen dira, bizitzako gauza erreal eta praktikoetaz eskas arduratzen direlarik.

TAURUS, VIRGO, CAPRICORNIUS lur zeinuak

Lurra da mundu materiala, ukitzen ahal dena, gauza fisikoak. Su zeinukoekin gertzatzen zen bezala, hauek ez dute zalapartaka jokatzeko, mantso eta

seguru baizik, arrunt praktikoak dira.

Suak gauzei hasiera ematen die, baina aspertzen da; lurrak, aldiz, bukatu egiten ditu. Maiz leporatzen zaie ezkorrak eta serioegiak izatea; beraiek ordea praktikoak eta errealistak izan nahi dute.


GEMINI, LIBRA, AQUARIUS aire zeinuak

Airea da komunikazioa, ideak, jende arteko erlazioak. Aire aunitz daukatena dira soziableenak, aski arrazionalistak eta objetiboak, nahiago dute pentsatzen eta konzeptualizatzen jarraitu ekintzatara jo baino. Solaserako

eta talentu handia daukate, eta arriskua da bertzerik ez egitea.

CANCER, SCORPIO, PISCIS ur zeinuak

Kartetan, ura da emozioen sakontasuna, ezagueraren instintiboa. Ura sentimenduen sinonimoa da, aski sotila. Ur zeinetako jendeak sentimenduekin kontaktuan daude, bertzeak susmatu ere ez dituzten xehetasunekin. Sobera subjektiboak eta sentiberak izatea da hauen arriskua eta egoeraren errealitateaz ez ohartzeara.



FERMIN ALTZUGUREN

ETXEBIZITZAK

-**Etxe edo baserria** erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Antonio Tfnoa: (948) 59 40 54

-**Lesaka.** Pisua salgai. Bittiria kalea-Gurutze etxea 2.C

-**Bera.** Pisua salgai. Eztegarra ibilbidea 19, 2.A Tfnoa: 630455

-**Bera.** Pisua salgai. Eztegarra ibilbidea 17,4.D Tfnoa: 630964/257802

-**Bera.** Pisua salgai. Itzean. Tfnoa: 630743

-**Bera.** Baserri bat erosi edo alokatu nahi dugu. Argibideak Larrutxuki 1. Tfnoa: 630532

-**Lesaka.** Pisu bat alokatu nahi dugu Lesakan. Erreferentzi onekoak izan arren, kale gorrian gaude. Deitu tfno. honetara: 637796

LANA

-**Frantzes klaseak** ematen dira. Maila guztiak. Tfnoa: 637969 Lesaka.

-**EGB klaseak** ematen dira. Tfnoa: 630146 Bera.

-**Gitarra, baxua eta bateria klaseak** ematen dira. Interesatuak hurbil zaitezte Laia musika dendara. Tfnoa: 631059

SALEROSKETAK

-**Udaberrirako bizikleta** baten jabe izan nahi baduzu hemen duzu aukera. Nahiko ongi dago eta merke merkea, 25.000 pztatan. zurea izan daiteke. 631188 Tfnoa.

-**Ordenadore** polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. Deitu 631188 telefonora.

-**Idazmakina elektronikoa** saltzen da. CANON markakoa. Interesatzen bazaizu deitu 631188 telefonora.

-**Pentax argazki makina** baten zat, bigarren eskuko objetiboak nahi ditugu. 28-80mmko bat bazenu oraindik hobeki. Tfnoa: 631188

-**Kanpin denda eder** bat salduko nuke, merke, konbenientziako prezioan. Interes dutenentzat Zubietan bizi naiz, Ibarrenea etxean. Asteburutan fijo, astegunetan atsaldez eta gauez.

-**Frigorifiko eta labadora** baten beharrean nago. Modemoago bat erosi eta zaharra non sartu ez badakizu,

nik eginen diot lekua. Diru kontua konponduko dugu. Tfnoa. 637796 Patxiz galdetu.

DENETARIK

-**Irrati antzerkilariak** behar ditugu. Bai publizitatea zein irratinobelak egiteko. Xorroxin Irratia. Elizondo Tfnoa.: 581226.

HARREMANAK

-**Eskuminak Lesakako** Josetxo, Mañolo, Marcos, Etxepe, Silvestre, Tomas, Iturria, Salva, Joxe, Luis, Joxeluis, Xixo, Ketzu, Suelto, Julian eta anaia, Iñaki, Txiri, Ordoki anaia, I. Txoperena, Morfi, Makatze, Kotteka, Loiarde, Txoltzan, Javi... eta tabernariei. ERANDIOTIK.

-**Euskaldunoi:** saia gaitezen euskaraz mintzatzen, ez bait gara ohar-tzen horrela segitzen badugu 50 urte baino lehenago hagitz gutxi adituko dela euskara gure hizkuntza.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRIGUREBULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitzaren dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren, Robert Morley-ren erran mamitsu baten aintzinean suertatuko zara.


A 2	G 11	E 10	B 10	H 6	D 8	B 6	F 5	F 13	E 1
E 12	H 3	G 2	D 14	D 1	A 15	G 15	B 11	A	H 8
G 9	A 1	H 13	E 16	F 1	B 2	D 3	A 13	B 13	E 6
D 13	B 16	G 5	B 4	F 12	H 4	H 10	A 5	G 10	F 2
B 15	H 9	D 11	E 8	A 8	H 11	G 6	E 11	D 4	A 10
A 12	F 11	E 4	D 15	H 12	D 7	A 9	F 7	E 15	B 3
B 9	G 8	H 5	A 6	F 14	D 16	F 16	D 9	H 15	A 4
B 12	A 3	H 14	G 13	F 3	B 5	E 5	A 14	B 8	
F 10	G 3	E 13	B 1	D 6	F 4	H 2	H 2	E 9	
F 8	G 1	G 7	E 2	G 14	F 6	G 12	D 10	D 2	

Azalpenak: 1. Distantzia. 2.- Pluralean, solomoa eta saihetsezurren arteko haragia. 3.- Parra-parra, ausarki. 4.- Pastelzaleak. 5.- Gonbiteak eginez. 6.- Haiei, dezakek. 7.- Gaizto bihurtuak. 8.- Hegazti emeen fruitu. 9.- *ttipi-ttapa* eremuko herria. 10.- Baxenafarroan eta, argi hastea, egunsentia.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
A							■									■
B														■		
D				■		■				■						
E		■					■					■				
F			■					■					■			
G				■												■
H							■									

ZORTZIKO TTIKIAN

Erantzun guztiak zortzi letrakoak dira eta zenbaki bakoitzaren inguruan paratu behar dira. Hitzak ordu orratzen arabera bideratu behar dira, abia letra zenbakiaren gaineko letra delarik beti.



Azalpenak: 1.- Landutako lur zatia. 2.- *ttipi-ttapa* eremuko herria. 3.- Nagusiki. 4.- Baserri eta etxeetako sarrera. 5.- Hegazti harrapariak. 6.- Heldu dena. 7.- Oiloa eta familiarentzako toki. 8.- Ihauteen ondokoa. 9.- Euri xehea. 10.- Baxenafarroan utzia. 11.- Arraildurak. 12.- Araitz ibarreko herria, *ttipi-ttapa* aldekoa bera ere.


ARROZ BERRI

SAME

6 SALFRE

IRURITA

Tfnoa.: 581021



Nekazal tresneria

